

## BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

### 346

*107/2020 EBAZPENA, abenduaren 29koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita argitara ematea Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako Foru Sailaren eta HABEren arteko lankidetzaz hitzarmena, 2020an «Euskara Eskura Txartela» deritzon programa abian jartzeko.*

HABEK hitzarmena sinatu duenez gero, zabalkunde egokia izan dezan, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako Foru Sailaren eta HABEren arteko lankidetzaz hitzarmena, 2020an «Euskara Eskura Txartela» deritzon programa abian jartzeko. Honen eranskinean dago jasota testu hori.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 29a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,  
JON URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

2021eko urtarrilaren 22a, ostirala

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO  
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN ABENDUAREN 29KO 107/2020  
EBAZPENARENA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO EUSKARA, KULTURA ETA KIROLEKO FORU SAILAREN  
ETA HABEREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, 2020AN «EUSKARA ESKURA  
TXARTELA» DERITZON PROGRAMA ABIAN JARTZEKO

Bilbon, 2020ko abuztuaren 3an.

BILDU DIRENAK:

Alde batetik, Lorea Bilbao Ibarra andrea, ondore hauetarako helbidea Bilboko Recalde zumar-kaleko 30. zenbakian duena, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua den aldetik.

Bestetik, Bingen Zupiria Gorostidi jauna, ondore hauetarako helbidea Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1. zenbakian duena, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua eta HABERen lehendakaria den aldetik.

PARTE HARTZEN DUTE:

Lehendabizikoak dihardu Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu gisa, batetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren bidez dagozkion ahalmenen arabera, eta, bestetik, Euskara eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko errege-lamenduan ezarritakoa garatzeko dagozkion eskumenen arabera (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak onartu zuen erregelamendu hori).

Bigarrenak dihardu HABE erakundearen izenean eta haren ordezkari gisa (IFZ: Q2040002D), erakunde horren lehendakaria baita.

Alderdiek, beren karguen berezko egitekoetan ari direla, erabateko gaitasuna aitortzen diote elkarri lankidetzaren hitzarmen hau egiteko. Hori dela eta, hauxe

ADIERAZTEN DUTE:

Bat.– Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren bitartez, kulturaren arloko hainbat jarduera eta egitarau antolatu eta sustatzen ditu, hainbat xedapenetan ezarritakoari jarraituz eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzak 2012an eta 2013an eta Eusko Legebiltzarrak 2013an onetsi zuten Euskara Sustatzeko Ekintza Planak (ESEP) ezarritakoaren arabera. Horretara, bada, Bizkaiko Foru Aldundiak beharrezkotzat jotzen du euskara ikasteko ahaleginetan ari direnei laguntzeko neurri egokiak hartzea, esan nahi baita, euskaraz edonoiz eta edonon aritu ahal izateko gaitasuna lortu arte bide horretan jarraitzeko gogoia pizteko lagungarriak izango diren neurriak.

Foru Erakundeak, halaber, euskara ikastearren ezer ordaindu beharrik ez izateko egin beharreko bidea jorratzen lagundu nahi du; horrela, gainera, helduentzako euskararen irakaskuntzan dihardutenen sektorea indartuko da.

Bi.– Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortu zuen 1983ko azaroaren 25eko 29/1983 Legearekin bat etorritz, HABE erakundea Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari atxikitako izaera administratibodun erakunde autonomiaduna

da, berezko nortasun juridikoa duena eta bere lanak burutzeko gaitasun osoa bere eskuetan daukana.

HABEren helbururik aipagarriena, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako hizkuntza-politikaren arloan eskumena duen organoak emandako jarraibideen ildotik helduen euskalduntzea sustatzea da, baita helduen euskalduntzearen alde lan egiten duten erakunde publiko zein pribatuekin plan zehatzak egiteko hitzarmenak izenpetzea ere.

Hiru.– 2016ko ekitaldian lehen aldiz ezarri zen Euskara Eskura Txartela programa, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta HABEren arteko lankidetzeta-hitzarmenari esker. Ostean, hitzarmen horri atxiki dakizkioke euskaltegiak eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuak; izan ere, hitzarmena sinatzen duten alderdien iritziz, programa hori ezartzea komeni da, bizkaitarren zerbitzura euskarari beste bultzada bat emateko.

2020ko ekitaldirako hitzarmen honen bidez, jarraipena eman nahi zaio programa horri, haren edukian jasotako zehaztasunak aintzat hartuta.

Lau.– Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoaren arabera, hitzarmen honek lege horretako 47.2.a) artikuluan xedatutakoa betetzen du.

Halaber, hitzarmen hau Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak onesten duen 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago, haren edukia kontuan hartuta. Izan ere, lege horretako 6.1 artikuluan adierazten denez, lege horren eremutik kanpo geratzen dira lege honetan edo arau administratibo berezietan araututa dauden kontratuen edukian sartzan ez den edukia duten hitzarmenak, honako hauek elkarren artean egindakoak badira: Estatuko Administrazio Orokorra, Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak, unibertsitate publikoak, erakunde autonomoak eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoak, toki-entitateak, haien mendekoak diren nortasun juridiko publikoko erakundeak eta nortasun juridiko pribatua duten erakundeak, baldin eta, azken kasu horretan, botere adjudikatzailearen izaera badute.

Bost.– Kontuan hartuta Bizkaiko Foru Aldundiak eta HABEk elkarrekin lankidetzan aritzeko interesa dutela, eta lankidetzeta hori interes publikoaren onerako izan daitekeela, esku-hartzaileek lankidetzeta-hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, honako hauen arabera

## ESTIPULAZIOAK

Lehenengoa.– Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen hau Bizkaiko Foru Aldundiaren eta HABEren arteko lankidetzeta-esparru modura ezarri da, 2020an Euskara Eskura Txartela (EET) programa martxan jartzeko.

Bigarrena.– Hitzarmenaren helburua.

Euskara Eskura Txartela programaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren bitartez, euskararen ikaskuntza sustatuko du HABEren Erregistroan inskribatutako euskaltegietan eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetan. Horretarako, deskontu-bonu bat emango die hitzarmen honetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten ikasleei, 2020-2021 ikasturtean erabili ahal izateko:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egotea.

b) HABEren erregistroan inskribatutako euskaltegi batean edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatu batean matrikulatua egotea 2019ko ekainaren 1etik 2020ko ekainaren 30era bitarteko epean.

c) HABEko zuzendariaren ebazpenez deitutako 2019. urteko laugarren ebaluazio-garaian edo bigarren azterketa-deialdian edo deialdi irekian, edo 2020. urteko ekainaren arteko ebaluazio-aldietan edo lehen azterketa-deialdian parte hartu eta A1, A2, B1 edo B2 mailak gainditu eta egiaztatu izana.

d) Halaber, euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentroetako ikasleek EETerako eskubidea izango dute baldin eta, estipulazio honen a) eta b) letretan zehaztutako eskakizunak betetzeaz gain, 2010eko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak (2017ko uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaren bidez aldatu zenak) HABEren A1, A2, B1 edo B2 euskara-mailekin baliokidetutako euskara-mailetako edozein gainditu eta egiaztatu badute 2019ko irailaren 1etik 2020ko abuztuaren 31ra bitartean (dagokion deialdiaren behin betiko zerrendak argitaratzen diren dataren arabera).

Hitzarmen honen esparrutik kanpo eta beraz, deskontu-bonua erabiltzeko aukerarik gabe geratuko dira administrazio publikoetan lan egiten duten pertsonak, administrazio publikoek euskara ikasteko eta hizkuntza horretan gaitzeko ikastaroak ordaintzen badizkiete.

Zirkulazioan jarritako EETak izendunak eta besterenezinak izango dira. Eta lau kategoriatan sailkatuko dira:

– A1 motako EETa; txartel mota honek gehienez ere 150 euroko balioa izango duen deskontu-bonua lortzeko eskubidea emango die maila hori gainditu eta egiaztatu duten eta ekimen honetan parte hartzen duten pertsonen.

– A2 motako EETa; txartel mota honek gehienez ere 200 euroko balioa izango duen deskontu-bonua lortzeko eskubidea emango die maila hori gainditu eta egiaztatu duten eta ekimen honetan parte hartzen duten pertsonen.

– B1 motako EETa; txartel mota honek gehienez ere 300 euroko balioa izango duen deskontu-bonua lortzeko eskubidea emango die maila hori gainditu eta egiaztatu duten eta ekimen honetan parte hartzen duten pertsonen.

– B2 motako EETa; txartel mota honek gehienez ere 400 euroko balioa izango duen deskontu-bonua lortzeko eskubidea emango die maila hori gainditu eta egiaztatu duten eta ekimen honetan parte hartzen duten pertsonen.

EET guztiak metatu daitezke; beraz, maila bat baino gehiago gaindituz eta egiaztatuz gero hitzarmen honetan ezarritako epeen barruan, lortutako EET bakoitzari egotzi ahal zaizkion zenbatekoen baturari dagokion deskontua lortuko du. Edonola ere, matrikularen zenbatekoan ezarritako muga errespetatuko da (hau da, ez da egongo gehiegizko finantzaketarik).

EETen kanpaina hau 2020-2021 ikasturtean programari atxikitako euskaltegietan eta euskararen autoikaskuntzarako zentroetan izena emanda dauden ikasleei bakarrik aplikatuko zaie, eta edonola ere, urriaren 16a baino lehen eta, barnetegi iraunkorretako ikastaroak badira, azaroaren 4a baino lehen. Hala, deskontu-bonua jaso badute baina 2020-2021 ikasturterako ezarritako epean izena eman ez badute, ez dute zenbateko baliokideagatik likidazioa aplikatzeko eskubiderik izango.

Ikasleek Bizkaiko Foru Aldundiak horretarako gaitutako web-orri baten bitartez parte hartuko dute. Web-orri horren inguruko publizitatea egingo da eta momentu egokian haren berri emango

zaie HABEri eta programan parte hartzen duten euskaltegiei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei.

Hirugarrena.– Hitzarmenaren baliabide ekonomikoak.

Programa honetarako 2020ko ekitaldian erabiliko den zenbatekoa laurehun mila (400.000) euro) da, partida hauetan honela banatuta: G:/0406/335106/0000/432.99-2015/0052 partida, 167.000 euro; G:/0406/335106/0000/443.00-2015/0052 partida, 125.000 euro; eta G:/0406/335106/0000/451.00-2015/0052 partida, 108.000 euro. Partida bakoitzean ordaindu beharko den zenbateko zehatza programari atxikitako euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek aurkeztutako likidazioak aztertu ondoren zehaztuko da, bakoitzaren forma juridikoaren arabera; horrenbestez, ordainketak egin aurretik, kredituak birbanatu egingo da arestian aipatutako partiden artean, edo beste batzuen artean, hasiera batean aurreikusi ez den beste forma juridikoren bat balego.

Laugarrena.– Hitzarmenaren gauzatzea.

Programa hau exekutatzeke honako hauek hartuko dira kontuan:

#### ATXIKITZEKO BALDINTZAK EUSKALTEGIENTZAT ETA AUTOIKASKUNTZARAKO ZENTRO HOMOLOGATUENTZAT

Euskara Eskura Txartela programari atxiki ahal izango zaizkio honako baldintza hauek betetzen dituzten euskaltegiak eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuak:

– HABEren euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen Erregistroan inskribaturik egotea, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak 2003ko abuztuaren 6an emandako aginduari jarraituz.

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak epean beteta izatea. Hala dela egiaztatzeke, horretarako emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

– Dagokion inprimakiaren bitartez hitzarmen honi atxikitzea. Inprimaki horrekin batera hartzeko-dunaren fitxa bete beharko da.

#### ATXIKITZEKO EPEA ETA PROZESUA

Behin hitzarmen hau indarrean sartu eta gero, euskaltegiak eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuak edozein momentutan atxiki ahal izango zaizkio Euskara Eskura Txartela programari. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuaren bulegoetan (Recalde zumarkalea 30, 5. solairua, 48009 Bilbo) emango zaien inprimakian behar bezala adierazi beharko dituzte datu guztiak, eta Gizarte Segurantzari eta Foru Ogasunari egin beharreko ordainketa guztiak eginda dituztela adierazten duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

#### LAGUNTZEN INDARRALDIA ETA PROGRAMAREN EGUTEGIA

Deskonturako EET txartelak arestian deskribatutako baldintzak betetzen dituzten euskaltegi-tan eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetan erabili ahal izango dira.

Programaren egutegia honako hau izango da:

1.– Ikasleek Bizkaiko Foru Aldundiak horretarako gaitutako web-orriaren bidez eman ahal izango dute izena ekimen honetan, 2020ko uztailaren 29tik abuztuaren 7ra bitartean (egun horiek

biak barne). Horretarako, eskabideari erantsi behar diote –webaren bidez eta arestian adierazitako epearen barruan– «Ikasleek EETak lortzeko prozedura» atalean adierazitako dokumentazio guztia.

2.– Ikasle eskatzaileek programan ezarritako baldintzak (Bizkaiko Lurralde Historikoan errol-datuta egotea) betetzen dituztela egiaztatu ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak 2020ko abuztuaren 17a baino lehen bidaliko beharko dio HABEri Bizkaian errol-datutako eskatzaileen zerrenda, erakunde horrek parte-hartzaileek egiaztatutako mailak jarrita itzul diezaion zerrenda hori. Hau da, EETaren onuradun diren pertsonak eta parte-hartzaile bakoitzari esleitu ahal zaion EET mota jasotzen dituen behin-behineko zerrenda bidali behar dio HABEK. Behin-behineko zerrenda hori 2020ko irailaren 7a baino lehen helarazi behar dio HABEK Bizkaiko Foru Aldundiari.

3.– Behin zerrenda hori jasota, honako hauek argitaratuko ditu Bizkaiko Foru Aldundiak eskatzaileen profiletan, programa kudeatzen duen aplikazioa erabiliz: eskatzaile bakoitzak egiaztatutako maila eta matrikulan deskontu bat izateko eskubidea. Deskontuaren gutxieneko zenbatekoa aurkeztutako eskabideen arabera zehaztuko da; gehieneko zenbatekoa, berriz, hitzarmen honen bigarren estipulazioan EET bakoitzarentzat zehaztutakoa izango da. Argitaratzea, gutxi gorabehera, iraileko lehenengo astean egingo da.

4.– Eskatzaileek 10 egun naturaleko epea edukiko dute aurreko puntuan adierazitako emaitzaren aurkako erreklamazioa aurkezteko, horretarako gaituko den postontzia erabiliz (webean adierazitako da zein den postontzi hori).

5.– Behin 10 egun naturaleko epea igarota, Bizkaiko Foru Aldundiak posta elektronikoz helarazitako dizkio HABEri aurkeztutako erreklamazio guztiak. HABEK 10 egun naturaleko epea izango du, erreklamazioak bidaltzen zaizkionetik, haiek ebazteko eta ebazpena sistema bera erabiliz (posta elektronikoa) jakinarazteko Bizkaiko Foru Aldundiari.

6.– EETA jaso duten ikasleek programari atxikitako euskaltegietan eta autoikaskuntzarako zentro homologatuetan bakarrik erabili ahal izango dituzte txartelok, hurrengo ikasturterako –2020-2021 ikasturterako– matrikulazio-epea hasten denetik 2020ko urriaren 16ra arte, eta 2020ko azaroaren 4ra arte erabili ahal izango dituzte, berriz, barnetegi iraunkorren kasuan.

7.– Matrikula egiteko epea amaitu ondoren, programari atxikitako euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek astebete izango dute deskontu-bonuak aplikazio informatikoan sartzeko, oraindik sartu gabe badituzte. Hau da, 2020ko urriaren 26rako sartuta izan beharko dituzte, eta epe hori ezin izango da luzatu. Barnetegi iraunkorren kasuan, epe hori 2020ko azaroaren 6an bukatuko da.

8.– Aurreko zenbakian ezarritako epeak igaro ondoren, ezin izango dira erabili deskontua lortzeko. Ikasleei ez zaie inolako diru-kopururik itzuliko lortu baina erabili ez dituzten EET bonuak direla eta.

9.– Programari atxikitako euskara irakasteko erakundeei matrikulan erabilitako deskontu-bonuak aplikazioan sartzeko ematen zaien epea amaitu ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak, HABErekin batera, deskontu-bonuen zenbateko zehatza zehaztuko du. EET bakoitzaren behin betiko zenbatekoa benetan matrikulatutako ikasle onuradunen kopurua egiaztatu ondoren kalkulatu da, honako hauek kontuan hartuta:

– Erabilgarri dagoen partidaren zenbatekoa.

– Matrikularen zenbatekoa.

- EET mota bakoitzari egotzi ahal zaion gehieneko zenbatekoa.
- Benetan erabilitako deskontu-bonuen kopurua eta mota.

10.– Programari atxikitako euskara irakasteko erakundeek benetan matrikulatutako ikasle bakoitzak matrikula dela-eta ordaindutako zenbatekoa sartu behar dutenez aplikazio informatikoan, Bizkaiko Foru Aldundiak zainduko du ez dagoela gehiegizko finantzaketarik. Horrek esan nahi du deskontu-bonuaren zenbatekoak ezin duela inola ere gainditu matrikulari dagokion kopurua. Bizkaiko Foru Aldundiak 2020ko azaroaren 11 baino lehen zehaztu beharko du EET bakoitzari dagokion behin betiko zenbatekoa, HABEren laguntzarekin.

11.– Behin zenbateko horiek zehaztuta, Bizkaiko Foru Aldundiak onuradun bakoitzari eta programari atxikitako euskara irakasteko erakundeei ere jakinaraziko die. Jakinarazpena programa kudeatzen duen aplikazio informatikoaren bidez egingo da, erakunde horiek likidazioa prestatu eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zerbitzura bidal dezaten.

12.– Likidazio hori –legezko ordezkariak zigitatua–, Ogasunari eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak egunean dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak eta deskontuak benetan egin direla erakusten duten egiaztariak 2020ko azaroaren 16a baino lehen bidali beharko dira Euskara Zerbitzura, ordainketak foru-araudian ezarritako aurrekontu-epeen barruan izapidetu ahal izateko.

#### IKASLEEK EETAK LORTZEKO PROZEDURA

Ikasleek nahi badute bakarrik hartuko dute parte programa honetan, web-orri baten bitartez, eta honako hau egin beharko dute:

- Programaren baldintzak onartu beharko dituzte; web-orrian bertan zehaztuko dira baldintzok.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren, HABEren eta programari atxikitako euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen arteko datuen trukea onartu beharko dute, DBLOrekin bat etorriz.
- Programarako eskatzen diren agiri guztiak aurkeztu beharko dituzte horretarako ezarritako epea bukatu baino lehen. Nahitaezko datu edo agiriren bat falta bada, ezingo da eskaera bukatu.

Zentzu horretan, honako baldintza hauek betetzen dituzten ikasleek jaso ahal izango dute EETA:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoan errolatuta egotea. Horretarako, errolatze-ziurtagiria aurkeztu beharko dute, eskaneatuta, web-orriaren bidez. Ziurtagiri hori indarrean egon beharko da eskabidea egiten den egunean. Hori dela eta, errolatze-ziurtagiri hori eskabidea egin baino hiru hilabete lehenago emandakoa izango da, gehienez ere.

b) HABEren erregistroan inskribatutako euskaltegi batean edo euskararen autoikaskuntzarako zentro batean matrikulatuta egotea 2019ko ekainaren 1etik 2020ko ekainaren 30era bitarteko epean.

c) HABEko zuzendariaren ebazpenez deitutako 2019. urteko laugarren ebaluazio-garaian edo bigarren azterketa-deialdian edo deialdi irekian, edo 2020. urteko ekainaren arteko ebaluazio-aldeitan edo lehen azterketa-deialdian parte hartu eta A1, A2, B1 edo B2 mailak gainditu eta egiaztatu izana.

d) 2010eko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak (2017ko uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaren bidez aldatu zenak) HABEren A1, A2, B1 edo B2 euskara-mailekin baliokidetatutako euskara-mai-

lak 2019ko irailaren 1etik 2020ko abuztuaren 31ra bitartean (dagokion deialdiaren behin betiko zerrendak argitaratzen diren dataren arabera) gainditu eta egiaztatu izana.

HABE arduratuko da dagokion maila gaindituta eta egiaztatuta izatearen baldintza hori teknikoki egiaztatzeaz eta ziurtatzeaz.

Ikasleak lortutako ziurtagiria ez bada HABEk emandako ziurtagirietako bat, baina programa honetan maila bakoitza gainditzeko ezarritako baldintzak eta betebeharrak guztiak bete ondoren lortu bada, ikasleak zehaztu beharko du zer agiri lortu duen eta zer erakundek eman dion agiri hori.

EETA lortu nahi duten eta arestian ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikasleek erabilgaitzaile-izena eta pasahitza eskatu beharko dute programaren web-orriaren bitartez, bertan identifikatzeko, eta, horretarako, nahitaezko eremu hauek bete beharko dituzte:

- Izen-abizenak.
- Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia edo agiri baliokidearena, euskaltegian edo autoikaskuntzarako zentroan izena emateko orduan identifikatzeko erabili zuena eta HABEk duen erregistroarekin bat datorrena.
- Helbidea.
- Posta elektronikoa.
- Telefono-zenbakia.
- Programaren baldintzen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren, HABEren eta programari atxikitako euskaltegien zein euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen arteko datuen trukearen onarpena, DBLOrekin bat etorritik.
- Erroldatze-ziurtagiria eskaneatuta (irakurtzeko moduko kalitatea izan beharko du). Erroldatze-ziurtagiri hori eskabidea egin baino hiru hilabete lehenago emandakoa izango da, gehienez ere.
- Agiria HABErena ez bada, lortutako ziurtagiria eta dagokion maila.

Adierazitako datuak eta agiriak ezarritako epean aurkezten ez badira, ezingo da eskaera grabatu eta, beraz, parte hartzeko eskaera ezingo da epe barruan aurkeztu.

Ikasleek postontzi bat izango dute programari buruzko zalantzak bidaltzeko.

Web-orriaren bitartez, programaren kudeatzaileak dagokien txartela emango die programan parte hartzeko eskaera egin duten eta ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikasleei. Deskontu-bonu modura erabili ahal izango dira programari atxikitako euskaltegietan eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetan 2020-2021 ikasterterako izena ematean.

## PROGRAMARI ATXIKITAKO EUSKALTEGIEK ETA EUSKARAREN AUTOIKASKUNTZARAKO ZENTRO HOMOLOGATUEK JASOTAKO EETAK TRUKATZEKO PROZEDURA

Behin programari atxikitako euskaltegietan edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetan 2020-2021 ikasterterako izena emateko EETak aurkeztuta, Bizkaiko Foru Aldundia arduratuko da haiekin zuzenean deskontuak trukatzeko eta ordaintzeko. Euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatu horiek honako agiri hauek bidali beharko dituzte Bizkaiko



Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara Zerbitzura (Recalde zumarkalea, 30, 5. solairua, 48009 Bilbo):

– Ikasleak jasotako EET, 2020-2021 ikasturterako matrikula ordaindu duela erakusten duen agiriarekin batera.

– Izena emateko prozesuan EETa erabili duten ikasleen zerrenda. Honako hauek agertu behar dira zerrenda horretan:

- Izen-abizenak.
- Deskontua egiteko erabilitako EET mota.

– Egindako deskontu osoari dagokion zenbatekoagatik likidazioa. Euskaltegian eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuan erabilitako EET kopurua adierazi beharko da, txartel motaren arabera bereizita.

Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo kokatutako euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen kasuan, HABEren lankidetzaren teknikoaz eta koordinazioaz ordainduko dira deskontuak.

Nolanahi ere, ordainketa egin aurretik, programaren kudeatzaileak egiaztatuko du programari atxikitako euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek bete egiten dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

Bizkaiko Foru Aldundiak kontrol-mekanismo bat ezarriko du -2020ko ekitaldiaren barruan betiere- hitzarmen honi atxikitako euskaltegiekin eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuekin trukutzen direnean hala HABEk emandako zerrendan agertzen diren pertsonen matrikulazioei buruzko datuak nola pertsona horiei egindako likidazioak.

Bosgarrena.– Bizkaiko Foru Aldundiaren betebeharrak.

Bizkaiko Foru Aldundiak, hots, programaren kudeatzaileak, honako konpromiso hauek hartzen ditu hitzarmen honen bitartez:

1.– Parte hartzeko eskaerak egiteko web-orria martxan jartzea eta erabiltzaileen eskura jartzea.

2.– Programari atxikitako euskaltegiei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei EETak erabiltzetik eratorritako deskontuen pareko zenbatekoa ordaintzea, aurreko horiek EETak jaso dituztela frogatu ondoren.

3.– Programari dagokion publizitate-kanpaina egitea eta HABEren eta programari atxikitako euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen esku jartzea berorren publizitate-material guztia.

4.– Euskaltegiak eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuak programara batzeko agiriak biltzea eta izapidetzea, aldeztu aurretik ezarritako baldintzak errespetatuz.

5.– Programan parte hartzeko eskaera egin duten ikasleek erroldatuta egotearen gutxienezko baldintza betetzen dutela egiaztatzea.

6.– Programan parte hartzeko eskaera egin duten pertsonen zerrendak bidaltzea HABEri.

7.– EET bakoitzaren zenbatekoa kalkulatzea, HABErekin batera, aurkeztutako erreklamazioak (halakorik aurkeztu bada) ebatzi ondoren. Kalkulu hori egiteko, kontuan hartuko da ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen kopurua.

8.– Ikasleen esku jartzea dagozkien EETak, web-orriaren bidez.

9.– Programari atxikitako euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek erabilitako EETen likidazioak eta frogagiriak jasotzea.

10.– Programari atxikitako euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek jasotako EETak eta likidazioak erkatzea, eta ordainketa izapidetzea euskaltegiei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei zuzenean; HABEren lankidetzaren teknikoak eta koordinazioaz egingo da Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo kokatuta daudenen kasuan.

11.– Programari erabilitako EETen zerrenda bidaltzea HABEri.

12.– Eskatzaileek planteatu ahal dituzten gaietara zuzenean erantzuteko harreman teknikorako bide bat eskaintzea, batez ere aplikazio kudeatzailearen funtzionamenduari dagokionez. Lantik foru sozietateak berariaz prestatuko dituen baliabideak erabiliko dira horretarako.

13.– Arlo informatikoan baliabideak (harremanetan jartzeko pertsonak eta ordezkioak) eskaintzea, datuak transmititzeko programa kudeatzen duten aplikazioen artean. Transmisio hori elektronikoa izango da.

Seigarrena.– HABEren betebeharrak.

HABEK, hitzarmen honen bitartez, honako hauek egiteko konpromisoa hartzen du:

1.– Dagozkien mailak gainditu eta haiei lotutako ziurtagiriak lortu dituzten ikasleen zerrenda prestatzea, administrazio publikoetan lan egiten duten ikasleak alde batera utzita, administrazio publikoek euskara ikasteko eta hizkuntza horretan gaitzeko ikastaroak ordaintzen badizkiete.

2.– Programari atxikita baina Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo kokatuta dauden euskaltegiei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei lankidetzaren teknikoak eta koordinazioa eskaintzea jasotako EETak biderra ditzaten.

3.– Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari EETak erabiltzearekin lotutako informazio estatistikoa ematea.

4.– Harreman teknikorako bide bat eskaintzea eskatzaileek planteatu ahal dituzten gaietara zuzenean erantzuteko, batez ere egiaztatutako mailei buruzko informazioari dagokionez.

5.– Arlo informatikoan baliabideak (harremanetan jartzeko pertsonak eta ordezkioak) eskaintzea, datuak transmititzeko programa kudeatzen duten aplikazioen artean. Transmisio hori elektronikoa izango da.

Zazpigarrena.– Alderdiak hartu dituzten betebeharrak eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak.

Alderdi sinatzaileek hitzarmena sinatuz beren gain hartutako konpromisoak ez betetzea hitzarmena azkentzeko arrazoia izango da, hamaikagarren estipulazioan ezarritakoaren arabera.

Zortzigarrena.– Hitzarmenaren gauzatzearen jarraipen-, zaintza- eta kontrol-mekanismoak.

Hitzarmen honen xede diren jardueren jarraipena egiteko eta jarduera horiek zaindu eta kontrolatzeko, eta hitzarmena bera interpretatzeko, jarraipen-batzordea eratuko da. Batzordea alderdi biek osatuko dute: Foru Aldundiaren ordezkari bik eta HABEren beste ordezkari bik.

Jarraipen Batzordea honela osatuko da:

– Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren aldetik:

- Euskara Zerbitzuko burua, edo bera ordezten duena.
- Hizkuntza Gizarteratzeko Ataleko burua, edo bera ordezten duena. Idazkari legez arituko da.

– HABEren aldetik:

- HABEren Kudeaketa Zerbitzuko burua.
- HABEren Ikuskatzaitzaren arduraduna.

Aipatutako batzordeak ohiko bilera bi egingo ditu; hasteko, hitzarmen hau sinatutakoan, eta ondoren, programa amaitutakoan. Ezohiko bilerak ere egingo ditu, alderdiek hala eskatuta beharrezkotzat jotzen den edozein unetan.

Hitzarmen honetan beren-beregi ezarrita ez dauden gaietan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren II. kapituluaren 3. Atalean, eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan kide anitzeko organoei buruz araututakoa aplikatuko da.

Hitzarmen honen babesean egindako azken bileran, jarraian adierazten diren baldintza guztiak betetzen dituzten onuradunei esleituko zaizkien deskontu-bonuen proposamena adostuko du Jarraipen Batzordeak (hala badagokio, bilera horretan ebatziko da programari atxikitako euskaltegiei eta autoikaskuntzarako zentroeiei nola likidatu bonuoi dagozkien zenbatekoak):

– Hizkuntzaren A1, A2, B1 edo B2 mailak egiaztatuta izatea Euskara Eskura Txartelaren programa honetan araututako deialdietan.

– Programan parte-hartzaileak izatea eta HABEk jakinarazitako emaitzen aurka erreklamazioa aurkeztu izana.

– Erreklamazioa aurkeztu dela horretarako dagoen epearen barruan jakinarazi izana programaren kudeatzaileari.

– Erreklamazioa ebatzi gabe egon behar da deskontu-bonua erabiltzeko epea amaitu aurretik.

– Azkenean, programan parte hartzen duen ikasle horren aldeko ebazpena eman izana HABEk.

Kasu horretan, erreklamazioa aurkeztu duten programako parte-hartzaileek aldeko ebazpena lortu badute, kasuan kasuko Euskara Eskura Txartela programari dagokion zenbatekoa egokituko zaie, hots, txartela lortzeko eskubidea ematen duen euskara mailaren deialdiko programari dago-kiona, matrikularen zenbatekoaren mugarekin betiere.

Bederatzigarrena.– Hitzarmena aldatzeko araubidea.

Lankidetzeta-hitzarmen hau aldatzeko alderdi sinatzaileen ahobatezko adostasuna behar da.

Hamargarrena.– Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen hau sinatuko denean bertan jarriko da indarrean eta horrela mantenduko da harik eta burututako prestazioak zuzen daudela eta egokiak direla ziurtatu arte. Jarraipen Batzordearen azkeneko bilerari buruzko aktaren bitartez egiaztatuko da hori, eta, horretarako, berariaz batzartu beharko da 2021eko martxoaren 31 baino lehen. Halere, bi alderdietako edozeinek suntsiarazi ahal izango du, besteari jakinaraziz, hitzarmena indargabetu nahi den data baino hiru hilabete lehenago gutxienez.

Hamaikagarrena.– Azkentzeko arrazoiak.

Lankidetzeta-hitzarmena arrazoi hauengatik azkenduko da:

- Hitzarmenaren indarraldia amaitzeagatik, hura luzatzeko erabakia hartu ez bada.
- Alderdi sinatzaileek hitzarmena azkentzeko ahobatezko erabakia hartzeagatik.
- Alderdi sinatzaileetakoren batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeagatik.
- Deuseztasuna adierazteko epaileen erabakia emateagatik.
- Legeetan aurrez ikusitako beste edozein arrazoiengatik.

Hamabigarrena.– Datu pertsonalen babesaren arloko araubide juridikoa.

Hau da datu-babesaren arloan hitzarmen honi aplikagarri zaion araudia: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa; eta hitzarmenarekin batera I. eranskin gisa doan dokumentazio juridikoa, datu-babesaren arlokoa. Dokumentazio horretan identifikatzen da zer zerbitzu den datu pertsonalen tratamenduaren arduradun hitzarmenerako.

Hamahirugarrena.– Araubide juridikoa.

Hitzarmen hau Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 47. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean izenpetzen da, administrazio-izaera du eta ez zaio Sektore Publikoko Kontratuen 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legea aplikatu behar, lege horretako 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera (lege horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten du Espainiako ordenamendu juridikora).

Hitzarmen honek bete egiten ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuko 46.2 artikuluan ezarritako baldintzak. Foru-dekretu horrek, izan ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten du, zeinak garatzen baitu Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu batekina.

Hamalugarrena.– Hitzarmenaren interpretazioa.

Alderdiek Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuaren arbitrajea onartzen dute lankidetzeta-hitzarmenaren ondoriozko loturaren interpretazioaz Jarraipen Batzordeak konpondu ez dituen zalantzak argitzeko, betiere administrazioek zuzenbidean ezarritakotik at gelditzeko aukerarik ematen ez duen gaietako bat ez den kasuetan.

2021eko urtarrilaren 22a, ostirala

Lankidetzeta-hitzarmen hau irakurri ondoren hitzarmena egilesten dutenek beraren edukia berres-  
ten dute, eta ados daudela agerrarazteko bi kopia sinatzen dituzte goiburuan adierazitako tokian  
eta egunean.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua eta HABEren lehendakaria,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,  
LOREA BILBAO IBARRA.

## HITZARMENAREN ERANSKINA

## DATU PERTSONALEN BABESA

Europako Parlamentuaren eta Europako Batzordearen 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Araudiaren (EB) artikulua, datu pertsonalen tratamendua eta datu horien zirkulazio askea dela eta, pertsona fisikoen babesari buruzkoak (aurrerantzean, DBO) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren artikulua, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoak (aurrerantzean, DPBEBLO) diotenarekin bat etorri.

Datu pertsonalen tratamendua dakarren honako Hitzarmen honen indarra daukan datatik aurrera:

- HARE datuen tratamenduaren eragilea izango da eta datu pertsonaletan sartu ahalko da edo kudeatu ahalko ditu.

- BFAren Euskara Zuzendaritza Nagusia, datuen tratamenduaren arduraduna izango da.

Araudiak ezarritakoari jarraiki, datu horietan sartzea ez da datuen komunikaziotzat joko; hortaz, HARE tratamenduaren eragilea izango da eta Euskara Zuzendaritza Nagusiak emandako manuekin egin beharko die, ondoko neurriak betetzeari kalterik egin barik:

Datu pertsonalen tratamendua:

Euskara Zuzendaritza Nagusiak datuen tratamenduaren arduraduna/erantzunkidea izateari dagozkion pertsonaren ardurak eta zereginak dauzka eta HAREk datuen tratamenduaren pertsona eragileari dagozkion ardurak eta zereginak dauzka.

Datuen tratamenduaren arduradunak ondoko eginkizunak bete behar ditu:

a) «Datu pertsonalen tratamendua» deritzon eranskinean jasotzen diren datu pertsonalen tratamenduari lotutako jarduerak baimentzea.

b) Datuen babesari buruzko araudia betetzen dela aurretiaz zaindu, tratamenduak dirauen artean kontrolatu eta tratamenduaren ostean ikuskatzea.

c) Araudiari jarraiki, datuak tratatzeko eragiketa egokietan, datu pertsonalak babesteko ikuskarpenak, ikuskaritzak eta eragin-ebaluazioak egitea.

d) Aurretiazko kontsulta egokiak egitea.

«Datu pertsonalen tratamendua» izeneko eranskina berriazko jarraibideen agiria da eta, bertan, babestu beharreko datuak jasotzen dira, bai eta egin beharreko datuen tratamendua eta horren helburua ere. Gainera, HAREk hartu beharreko neurriak ere ageri dira. Pertsona horrek «Datu pertsonalen tratamendua» izeneko eranskinean jasotzen ez den helbururen batekin erabiliko balitu datuak, hitzarmen ezarritakoak eta indarrean dagoen legeriak xedatutakoak urrututa komunikatu edo erabiliko lituzke datuak eta, horregatik, datuen tratamenduaren arduradunatzat hartuko da eta egindako arau-hausteen ziozko erantzukizuna hartu beharko du.

Hitzarmena gauzatutakoan, betearazten den bitartean «Datu pertsonalen tratamendua» izeneko eranskinean ezarritakoa aldatu edo egokitu beharko balitz, HAREk adierazi beharko du zer aldatu edo egokitu behar den. Euskara Zuzendaritza Nagusia eskatutakoarekin ados egonez gero, «Datu pertsonalen tratamendua» izeneko eranskin eguneratua emango du, tratamenduaren nondik norakoak zehazki jasota.

Datuen tratamenduaren pertsona eragileak bete beharrekoak.

DBAOren 28. artikulua dioenari jarraiki, HABEk behean ageri diren betebeharrak beteko dituela bermatu behar du. Betebehar horiek «Datu pertsonalen tratamendua» izeneko eranskinean jasotakoarekin osatzen dira:

a) Datu pertsonalak hitzarmena betearazteari dagozkion jarraibide dokumentatuei eta, hala badagokio, Euskara Zuzendaritza Nagusiak unean-unean ematen dizkion aginduei jarraiki tratatzea. Aginduren bat datu pertsonalak babesteko araudiarekin bat ez datorrela uste badu, HABEK, 10 eguneko epean, horren berri jakinarazi beharko dio Euskara Zuzendaritza Nagusiari.

b) Datu pertsonalak ez erabiltzea edo aplikatzea hitzarmen betearazpenak ez daukan helbururen batekin.

c) Datu pertsonalak tratatzea DBAOren 32. artikulua ezarritako segurtasun-irizpideen eta bertako edukiaren arabera, eta behar diren neurri tekniko eta segurtasun- zien antolaketa-neurri guztiak hartzea eskuratzeko modua duen datu pertsonal guztien konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna ziurtatzeko. Zehatzago esanda, neurri horiek guztiek bat etorri behar dute informazio-sistemen kategorizazio eta segurtasun-neurrien aplikazioarekin, Administrazio Elektrotikoen esparruko Segurtasun Eskema Nazionalari buruzko 3/2010 Errege Dekretuak xedatzen dituen jarraiki.

d) Hitzarmena gauzatzeko, eskuratutako datu pertsonalen inguruko konfidentzialtasuna zeharo ziurtatzea, bai eta tratamenduaren ondorioz eskuratzeko diren datuena, datuak eskuratzeko euskarria zeinahi delarik ere.

Betebehar hori lotzen zaio, HABEren kontura, tratamenduaren edozein alditan parte hartzen duen pertsona orori eta, horrenbestez, pertsona fisiko edo juridiko horrek prestakuntza eskaini behar die bere menpeko pertsonen sekretua gorde beharreko betebeharrari buruz. Halaber, jakinarazi behar die konfidentzialtasuna gorde behar dutela jarduera amaitutakoan edo jarduera horretatik banandutakoan ere.

e) Datu pertsonalak tratatzeko pertsona baimenduen zerrenda kudeatzea eta pertsona horiek guztiek, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna gordetzeko eta segurtasun-neurri egokiak betetzeko konpromisoa hartzen dutela bermatzea. Ildo horretan, segurtasun neurrien berri behar bezala jakinarazi behar zaie. Aipatutako dokumentazio guztia Euskara Zuzendaritza Nagusiaren esku izan beharko dute une oro.

f) Datu pertsonalen arloan, datuok tratatzeko baimena duten pertsonen beharrezko prestakuntza ematea.

g) Kasuan-kasuan, datuen tratamenduaren arduradunaren berariazko baimena eduki ezean, datu pertsonalak hirugarrenei ez komunikatzea (lagatzea) edo zabaltzea, ezta datuak gordetzeko ere.

Datu pertsonalak komunikatzeko erregela orokorra, zuzenbide pribatuko subjektuek eskatzen dituztenean: Beharrezkoa da ukitutako pertsonen adostasuna (eurak baitira eskubide pertsonalen titularrak) edo tartean interes legitimoa egotea.

h) Hala bidezkoa bada, Datuak Babesteko ordezkaria izendatzea, DBAOren arabera beharrezkoa den guztietan, eta horren berri Euskara Zuzendaritza Nagusiari jakinaraztea, bai eta izendapena borondatezkoa denean ere.

Hala denean, HABEk izendatutako pertsona fisiko(ar)en nortasuna eta harremanetarako datuak eskuetarako beharko dizkio, bai eta, datu pertsonalak babesteari dagokionez, lehenengoaren ordezkari(ar)enak ere (tratamenduaren eragilea duen pertsonaren ordezkariak), datu pertsonalen tratamenduari lotutako araudia betetzeko ardura duten pertson(ar)enak, alegia, legezko eta formazko alderdietan eta segurtasun-eginkizunetan.

i) Hitzarmena gauzatutakoan, datuen tratamenduaren arduradunak, dagokion eran eta «Datu pertsonalen tratamendua» deritzon eranskinean esaten denari jarraiki, honakoak itzultzeko edo deusezteko konpromisoa hartzen du:

- Tratamenduan eskuratutako datu pertsonalak.
- HABEk, tratamendua dela eta, sortutako datu pertsonalak.
- Datu horiek gordetzen direneko euskarriak eta dokumentuak, kopia bat ere gorde barik.

Ezpada, legez edo Batasunaren zuzenbide-manuren batez gordetzea eskatzen ez bada. Hala-koetan, datuak ez dira suntsituko.

Hala eta guztiz ere, datuen tratamenduaren eragileak datuak gorde ahalko ditu datuen tratamenduaren arduradunarekiko harremanen ziozko erantzukizunak sor daitezkeen aldian. Azken kasuan, datuak blokeatuta gordeko dira eta behar beste gutxieneko denboraz. Gero, epea amaitu bezain pronto, datuak modu seguruan eta behin betiko suntsituko dira.

j) «Datu pertsonalen tratamendua» deritzon eranskinean jasotzen diren datu pertsonalen tratamenduari lotutako jarduerak gauzatzea.

k) DBAOren 33. artikulua xedatutakoari jarraiki, hala jakinez gero, bere ardurapeko datu pertsonalek pairatutako zeinahi segurtasun-urraketa Euskara Zuzendaritza Nagusiari berehala jakinaraztea, gehienez ere 72 orduren buruan, eta horrekin batera, gorabehera edo tratamenduaren sisteman gertaturiko akatsak dokumentatzeko eta komunikatzeko eta, bide batez, datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna arriskuan jar dezakeen informazio esanguratsu oro kudeatzeko. Halaber, dena delako negozio juridikoa gauzatzean eskuratu diren datuak eta informazioa hirugarrenei komunikatu zaizkielako, konfidentzialtasuna urra dezakeen gertaera guztien berri eman behar dio. Horren inguruko informazio zehatza komunikatuko du arretaz; ildo horretan, konfidentzialtasuna zer interesdunek galdu zuen ere azalduko du.

l) Pertsona fisiko batek datuak babesteari buruzko eskubideren bat (datuetan sartzea, datuak zuzentzea, ezabatzea eta aurkaratzea, tratamendua mugatzea, banako erabaki automatizatuen menpean ez dagoenean, edo indarrean dagoen legeriak aitortutako besteren bat) HABEren aurrean, azkenak gertaera horren berri eman beharko dio Euskara Zuzendaritza Nagusiari ahalik eta lasterren. Jakinarazpena berehalakoan egin behar da eta, inola ere, datuak babesteko eskubideren bat erabili den egunaren hurrengo laneguna baino beranduago, eta hala badagokio, arduradunaren esku dagoen eskaera ebazteko dokumentazioa edo informazio esanguratsua ere bidaliko da, eskubidea erabiltzen duenaren identifikazio sinesgarri eta guzti. Euskara Zuzendaritza Nagusiari lagunduko dio ahal den guztietan, zuzendaritzak eskubideak erabiltzeko eskaera bete eta erazko erantzuna emateko.

m) Euskara Zuzendaritza Nagusiarirekin lankidetzan aritzea segurtasun-neurrien, komunikazio-zereginen eta (lortutako nahiz saiaturako) segurtasun-arrakalen inguruko betebeharren alorrean, agintari eskumendunei edo interesdunei jakinarazteko helburuz, eta eragin-ebaluazioak egiten laguntzea.



Zuzendaritzari laguntzea kontroleko agintaritzari aurretiazko (DBEBri) kontsultak egiten laguntzea, hala dagokionean.

Era berean Euskara Zuzendaritza Nagusiaren eskariz, horren esku jarriko du beharrezko dokumentazio guztia lotutako eginkizunak bete direla egiaztatzeko eta, bestetik, laguntza emango du Euskara Zuzendaritza Nagusiak egindako ikuskaritza eta ikuskapenetan.

n) DBAOren 30.2 artikulua dioenari jarraiki, idatziz edota formatu elektronikoren batean Euskara Zuzendaritza Nagusiaren partez egindako datuen tratamenduko jardueren kategoria guztien erregistroa kudeatzea (datuen tratamenduaren arduraduna). Erregistro horretan, gutxienez, artikulua jasotzen dituen inguruabar guztiak jaso beharko dira. Ildo horretan, erregistroak ondoko informazioa jasoko du:

- Hitzarmena sinatu edo egin deneko pertsona fisiko edo juridikoaren izena eta harremanetarako datuak edo, hala badagokio, datuen tratamenduaz eragiten duten beste pertsona batzuen eta Euskara Zuzendaritza Nagusiaren (datuen tratamenduaren arduraduna) datuak.

- Egindako tratamenduaren kategoriak.

- Segurtasun-arloko neurri tekniko eta antolaketa-neurrien azalpena, eta horien aplikazioa bidezkoa bada, alderdi hauen ingurukoak:

- Datu pertsonalen pseudonimizatzea eta zifratzea.

- Tratamenduan erabilitako sistemen eta zerbitzuen konfidentziasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia iraunkorra bermatzeko gaitasuna.

- Gorabehera fisiko edo teknikorik gertatuz gero, datuen eskuragarritasuna eta datuetan sartzeko moduan berehala leheneratzeko gaitasuna.

- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolaketa-neurrien eragin-kortasuna aldizka egiaztatzeko, ebaluatzeko eta balioztatzeko prozedura.

ñ) Datu pertsonalen babesaren inguruko araudia eta erantzukizun aktiboaren betebeharra betetzen direlako ebidentziak izatea (adibidez: Ikuskaritzen betetze-mailaren edo emaitzen gaineko ziurtagiriak); halako ziurtagiriak Euskara Zuzendaritza Nagusiari helarazi beharko dizkio azkenak hala eskatuz gero. Era berean, hitzarmenak irauten duen artean, Zerbitzu eskumendunaren esku jarriko ditu unean-unean eskuragarri dauden informazioa, ziurtagiriak eta ikuskaritzen emaitzak.

o) Informazio-eskubidea: datuak biltzen dituenean, tratamenduaren eragilea daukan pertsonak egingo dituen datuen erabilerei buruzko informazioa eman beharko du. Informazio hori zelan eta zein formatutan emango den, datuen tratamenduaren arduradunarekin adostu beharko du datuen bilketari ekin baino lehen.

Honako klausula honek, bertan ezarrita dauden betebeharrak eta «Datu pertsonalen tratamendua»-ri buruzko eranskinak datu pertsonalen tratamendua arautzen duen egintza juridikoa osatzen dute. Egintza horrek Euskara Zuzendaritza Nagusia eta DBAOren 28.3 artikulua jasotzen duen HABE lotzen ditu. Agiri honetan jasotako betebeharrak eta prestazioak ez dira sarituko hitzarmen honetan ezarri ez den modu batean edo modu osagarri batean; hitzarmen honen besteko iraupena izango dute eta, hala badagokio, iraupen berdineko aldietan luzatuko dira. Hala eta guztiz ere, hitzarmen hau amaitzen denean ere, sekretua gordetzeko betebeharrak iraungo du, inolako denbora-mugarik gabe, prestazioa gauzatu duten pertsona guztientzat iraun ere.

Hitzarmen honen xede den helburua betetzeko, ez da beharrezkoa HABE Euskara Zuzendaritza Nagusiaren ardurapeko beste datu pertsonaletan sartzea eta, beraz, ez dauka inolako baimenik «Datu pertsonalen tratamendua» izeneko eranskinean jaso ez diren beste datu batzuetan sartzeko edo datuon tratamendua egiteko. Hitzarmena gauzatzen ari den artean, Euskara Zuzendaritza Nagusiaren ardurapeko eta «Datu pertsonalen tratamendua» izeneko eranskinean jaso ez diren datu batzuetan sartzea dakarren behin-behineko edo halabeharrezko gorabeherarik gertatuko balitz, HABEk Euskara Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi behar dio, hain zuzen ere, Datuak Babesteko ordezkariari, albait lasterren eta, beranduenez, 72 orduren buruan.

Tratamenduaren azpi-kontratazioa.

Hitzarmena ezarritakoa aintzat hartuta, gauzatu beharreko jarduera HABE ez den hirugarren baten bitartez egiteko modua dagoenean eta, gainera, gauzapean horrek hirugarrenek datuetan sartzeko aukera dakarrenean, Euskara Zuzendaritza Nagusiaren aurretiazko baimena beharko da kudeaketa bideratu ahal izateko.

Nolanahi ere, baimena emanda, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Prestazioan esku hartzen duten hirugarrenek egiten duten datu pertsonalen tratamenduak indarreko legeari, hitzarmen honetan ezarritakoari eta Euskara Zuzendaritza Nagusiak emandako aginduei men egin beharko die.

- HABE eta tratamenduan esku hartzen duten hirugarrenek datuen tratamenduaren arduradunari lotutako egintza juridikoa egin beharko dute, hitzarmen honetan ezarritako baldintza berdintsuetan (inoiz ez muga gutxiagodunak). Egintza juridiko hori Euskara Zuzendaritza Nagusiari helarazi behar zaio horrek eskatuz gero, egiatan formalizatu dela eta horren edukiak egiaztatzeko.

Habek gauzapenean esku hartzen duten eta datuetan sartzeko modua duten beste pertsona batzuek hastearren edo lehengoan ordezkariaren inguruan gertatzen den aldaketa edo hartzen diren erabaki guztien berri jakinarazi beharko dio Euskara Zuzendaritza Nagusia gehienez ere, 10 eguneko epean. Zerbitzu eskumendunak komunikazioari erantzun ezean, ezezkotzat jo behar da.

## ERANSKINA

**DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA****DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA***2016/679 ERREGELAMENDUA (EB) ETA DATUEN BABESARI ETA ESKUBIDE DIGITALEN BERMEARI BURUZKO 3/2018 DBLO***Datuen tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako datuak**

Euskara Zuzendaritza Nagusiak  
Rekalde zumarkalea 30, 6  
48009 Bilbao

**Datuen tratamenduaren eragilea**

HABE

**Datuen babeserako ordezkaria**

Aholkularitza Juridiko, Informazioaren Segurtasun eta Datuen Babeserako Atala (Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Saila).

Kale nagusia, 25 – 48009 Bilbo

**Pertsona interesdunaren eskubideak**

Interesatuak/eraginpekoak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, baita horiek tratatzeko mugak jartzeko edo horren aurka agertzeko ere, eta horretarako, Aholkularitza Juridiko, Informazioaren Segurtasun eta Datuen Babeserako Atalari zuzendutako idatzia aurkeztu beharko du hemen:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren erregistro nagusia (Laguntza, Herritarren erregistro eta arreta bulegoa: Diputazio kalea, 7 – 48008 Bilbo)
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Herritarrentzako Arretarako Eskualde Bulegoak
- Bizkaiko Foru Aldundiko sailen erregistro orokorrak
- 39/2015 Legean aurreikusitako lekuetan

Interesatuak era berean eskubidea du dagokion Kontrol Agintaritzan (Datuak Babesteko Euskal Bulegoan) erreklamazioak egiteko.

**Tratamenduaren helburua**

Eskabideak kudeatzea

**Datuen tratamenduaren jarduerak**

Datu pertsonalen tratamenduak honako hauek barne hartuko ditu:

Datuak atzematea	X
Datuak grabatzea	X
Datuak egituratzea	X
Datuak aldatzea	
Interesdunekin harremanetan jartzea	X
Datuak biltegitratzea	X
Datuak ateratzea (berreskuratzea)	
Datuak kontsultatzea	X
Datuak lagatzea / zabaltzea	X
Datuak interkonektatzea (gurutzatzea)	
Datuak erkatzea (egiaztatzea)	X
Datuak suntsitzea	
Tratamenduaren eragilearen informazio-sistemetan datuak kontserbatzea	X
Datuen aldi baterako kopiak egitea	X
Datuen segurtasun-kopiak egitea, datuen berreskuratzea	
Beste batzuk ( <i>zehaztu</i> )	

**Tratamenduaren legitimazioa**

- Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea.
- Euskararen erabilera normalizatzeko Eusko Legebiltzarraren 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak.

2021eko urtarilaren 22a, ostirala

**Datu pertsonalen kategoriak**

IDENTIFIKAZIO-DATUAK:	
NAN/IFZ / Identifikazio-agiri Ofiziala	X
Izen-abizenak	X
Posta-helbidea	X
Telefonia	X
Sinadura	X
Nazionalitatea	
Jaioteguna	
Jaioterria	
Adina	
Egoera zibila	
Helbide elektronikoa	X
Sexua	X
Gizarte Segurantzako zenbakia	
Irudia (argazkiak edo bideoak)	
Soinuak (audio-grabaketak)	
Sare sozialak (Twitter, Facebook, Instagram profilak, besteak beste)	
Seme-alaba kopurua	
Ezaugarri pertsonalak (altuera, pisua, taila, besteak beste)	
Beste batzuk ( <i>zehaztu</i> )	

2021eko urtarrilaren 22a, ostirala

BESTE DATU MOTA BATZUK	
Prestakuntza-datuak (titulu akademikoak, diplomak, besteak beste)	X
Lanbide-esperientzia -edo -historia	
Lanbidea	
Lanpostua edo lanbide-kategoria	
Lizentziak edo baimenak	
Elkarte, klub edo bestelakoetan kide izatea	
Jabetza edo ondasunak	
Ekonomikoak, finantzarioak edo aseguruak (banku-datuak, kontu korrontea, txartel-zenbakia, zergei, soldatei, subsidioei buruzko datuak, besteak beste)	
Informazio komertzialerako datuak (jarduerak, negozioak, besteak beste)	
Transakzioei buruzko datuak (interesdunak eskainitako ondasun edo zerbitzuak, interesdunak jasotako ondasun edo zerbitzuak, besteak beste)	
Administrazioko arau-hausteei buruzko datuak	
Zigor arau-hausteei buruzko datuak	
Beste batzuk ( <i>zehaztu</i> )	
DATUEN KATEGORIA BEREZIAK (DBEOren 9. art)	
Etnia- edo arraza-jatorria	
Iritzi politikoak	
Sinesmen erlijioso edo filosofikoak	
Sindikatu-afiliazioa	
Datu genetikoak	
Pertsona fisiko bat adiera bakarrean identifikatzera bideratutako datu biometrikoak	
Osasunari buruzko datuak	
Sexu-bizitzari edo sexu-joerei buruzko datuak	

**Pertsona interesdunen kategorien deskribapena**

Herritarrak	
Adingabeak (14 urte, DBEDBL Oren 7. art)	
65 urtetik gorako pertsonak	
Egoiliarak	
Bezeroak	
Hornitzaileak	
Atxikitako pertsonak edo kideak	
Jabeak edo errentariak	
Ikasleak	X
Legezko ordezkariak	X
Harremanetarako pertsonak	
Eskatzaileak	
Onuradunak	
Langileak	
Enplegu-eskatzaileak	
Kargu publikoa duten pertsonak	

**Datuen jatorria**

Tratatuturiko datu pertsonalak hemendik datoz:

Interesdunak edo beren ordezkariak.	X
Administrazio publikoak (Zehaztu):	
Erregistro publikoak (Sexu delitugileen erregistroa):	
Sektore publikoko beste erakunde batzuk (Zehaztu):	
Beste batzuk (Zehaztu):	

**Datuen hartzaileak**

Ez da datu pertsonalak lagatzeko aukera aurreikusten.

**Datuak kontserbatzeko epea**

Datuak negozio juridikoak irauten duen artean (luzapenak eta legezko betebeharrak betetzeko aldia aintzat hartuta) gordeko dira.

**Datuen tratamendua amaitzean datuak eskuragarri jartzea**

Datuen tratamendua amaitzen denean, HABEk, ondokoa egingo du: Euskara Zuzendaritza Nagusiari (edo horrek beren-beregi idatziz izendaturiko pertsonari) datu pertsonalak itzultzea, bai eta, bidezkoa izan ezker, datuak gordetzeko erabilitako euskarriak ere, behin prestazioa beteta. Itzulketak berarekin ekarri behar du HABEk erabilitako ekipo informatikoan dauden datu guztien ezabaketa osoa. Edozelan ere, HABEk kopia bat gorde dezake, behar bezala blokeatutako datuekin, prestazioaren betearazpenetik erantzukizunak sortu daitezkeen bitartean.

**Segurtasun neurri teknikoen eta antolakuntza-neurrien deskribapen orokorra**

Informazio-sistemen kategorizazioa eta segurtasun-neurrien ezarpena, Segurtasunerako Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan arautzen duen 3/2010 Errege Dekretuaren arabera.